



Skinheadak

Kaskamotzen Oi!-lategian

Burua soil, bakero estuak, Dr. Martens botak eta bomber jaka. Kalean daude. Hori da euren ekosistema. Ez dira modako aldizkarietan azaltzen; itxurarengatik epaitzen dituzte askok. Azken urteetan skinhead-ak Euskal Herriko gazteen artean ugaritzen ari dira. Kale tribua baino gehiago, bizitzaren aurreko jarrera da. Sarritan eskuin muturreko taldeekin lotu izan dituzten arren, Euskal Herriko skinheadengana hurbiltzen denak nekez aurkituko du horrelakorik. Gure artean daude eta asko dute esateko.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Dani Blanco

GEROZ ETA GEHIAGO dira. Geroz eta gazteagoak. “Boom bat egon da” dio Bilboko *Street Warriors* dendako arduradunak. *Kolinas* ezize-nez ezagunagoa da, Suspenders taldeko abeslaria izateagatik. Hiru urte joan dira Ronda kalean dagoen saltoki txikiak ateak zabaldu zituenetik. Skin estetikako arropa eta materiala saltzen du. “Musika talde pila dago, kolektiboak, futbolarekin loturiko mugimendua...”. Ez da arraroa Euskal Herriko kaleetan ilea azalaren pareraino moztuta daramaten gazteekin gurutzatzea. Zer ari da gertatzen? Zaila da esplikatzeko mugimendua azken urteetan gurean bizi duen gorakada, gertuagotik bizi dutenentzat ere. “Hipotesi asko daude. Askotan estetikan oinarritutako kontua da, jende gazte askori gustatzen zaio estetika hau, beldurra emateko edo. Skinhead hitza beti izan da hain gatazkatsua...”.

Gatazkatsua baino gehiago: eskuin muturreko mugimenduekin lotu izan dituzte gehienetan. Arrazakeriarekin. Faxismoarekin. Irudi hori da zabalduena hedabideetan, zineman eta argitalpenetan. Besteak beste *American history X* filmak edo *Diario de un skin* (Skin baten egunerokoa) liburuak argazki hori eskaini diote iritzi publikoari. Baina horrelakoak al dira skinhead guztiak? Bilakabide konplexua izan duen mugimendua da, aldaera eta ñabardura asko dituen, eta ez dirudi horrelako orokorkeriek garapen hori ulertzeko balio dutenik.

40 urte baino gehiagoko historia

Herrialde bat eta garai bat: II. Mundu Gerraren osteko Britainia Handia. Hara jo behar da skinhead mugimenduaren hastapenak ezagutzeko.

Sarraskiaren ondorengo berreraikuntza lanek Commonwealth osoko langile etorkinen izerdia eskatu zuten. Garai hartatik aurrera sortu zen arraza anitzeko gizartean piztu zen kaskamotzen sukarra, eta gaurdaino ez da apaldu.

1960ko hamarkadan Britainia Handiko neska-mutilek kontsumismoa ezagutu zuten. Langile gazteak, diru freskoa sakelan, modako arropa erosten hasi ziren. Modak sortu ziren: musika beltza gustuko zuten koadrila doto-reak. Hiriaren erritmoan bizitzea zuten kezka bakarra: ondo janztea eta gauez dantza egitea; anfetaminak hartu eta scooter motorretan hiritik ibiltzea; eta, noski, beste gazte taldeen aurka borrokan aritzea.

Musika zaletasunak zirela-eta, harreman estua izan zuten Jamaikatik Britainia Handira lan bila joandako gazteekin. Horietako asko rude boy-ak ziren, filmetako gansterren itxurara jantzitako kalekumeak. Ska eta reggae musika ezagutzeko aukera izan zuten lagun berriei esker.

1965 inguruan banaketa gertatu zen mod-en artean eta jarrera gogorrena zutenek ilea moztu zuten. Arrazoi estetikoak zeuden atzean: langile klaseko gazteak izaki, itxura oldarkorragoa eduki nahi zuten, protagonismoa hartzen ari ziren hippyengandik desberdintzeko. Baziren, dena dela, zio praktikoagoak ere –ile luzea ez da eroso lanerako, ezta borroketan ibiltzeko ere–.

George Marshall-ek *Spirit of '69-A Skinhead Bible* liburuan azaltzen duenez, 1968. urte inguruan bataiatu zituzten skinhead izenarekin mod kaskamotzok. Hamarkadaren bukaerarekin mugimendua zimeldu egin zen ordea; bestelako janzkera eta itxurak nagusitu ziren.

Ez zen denbora askorako izan.

Des-Kontrol

“Langileen semeak gara, pentsaera eskuindarra ez dator gurekin bat”

1996an hasi zen Des-Kontrol talde arrasatearra (Gipuzkoa) kontzertuak ematen. Euskal Herriko Oi! edo street-punk taldeen artean beterranoena da. Bi disko luze dituzte dituzte kalean, baita Hell Beer Boys taldearekin batera argitaratutako lana ere. Azken urteetako arrakastaren erakusgarri, 2005ean AEBetan bira egin zuten. Laster kalera-tuko dute bira horretako irudiak biltzen dituen DVDa.

Zakarrak, Puñetazo, Iskanbila... Lehenago Oi! taldeak egon dira, baina badirudi ez dutela zuek bezainbesteko arrakasta izan.

Hori izan liteke jendeak pentsatu lezakeena, igual beste mugida hori ez dutelako ikusi. Zakarrakekin behin edo behin jo genuen baina besteekin ez. Igual ez zuten eduki aukera hori, gaur egun badagoena, herriko jaietan jo, beste eszena batean hasi, eta jendea ere, punkaren mugida horrenbeste gustatu ez arren, hurbiltzeko. Guk hori lortu dugu, punk jendea, Oi! jendea eta eguneroko jendea uztartzea, eszena honetakoak izan ez arren, musika gustatzen zaielako.

Topikoa da esatea Oi!-a skinheaden musika dela?

Izatez punk, ska, reggae eta Oi! eszena horretan kontzertu batzuetara joaten den jendea, gutxi gorabehera, besteetara ere joaten da azkenean. Nahiz eta 100%-ean horrela ez izan, konpartitzen da, punka, Oi!-a eta street-punkaren kasuan. Jendea kontzertu berdinetera joaten da gutxi gorabehera eta gustu komun batzuk izaten ditu. Horregatik, eszena barruan jende bera ikusten duzu. Hori bai, musika hori gustatu ahal zaion jendea dago, baina eszena barruan ez dagoena.

Azken urteetako eztanda zergatik etorri da? Zergatik hainbeste talde?

Ibilbide bat egon da, eta Arrasaten gehien bat tradizioa dago musika horretan. Ez dakit azkenean kultu moduko bat egin ez ote den inguru honetan. Ikastolara zoaz eta zazpi urteko mutikotxoek Des-Kontrolen kamiseta daukate! Orain arte RIPen mugida egon da: Espainiako



Estatu osoan ezagunak dira. Talde horrek egin zuena *la hostia* izan zen. Guk, konnotazio historikoa aldatuz —egoera soziopolitikoa desberdina da— hartu dugun norabideak ildo beretik jarraitu duen arren, jende gehiagorengana heldu gara.

AEBetan, Austrian eta Alemanian jo duzue, besteak beste. Indartu egin al da atzerriko eszena alternatiboa?

Punk mugida beti izan da oso hermetikoa: “Punka, punka bakarrik eta beste ezer ez”. Eta orain jendeak ikuspuntutuz aldatu du. Punk jendeak eta Oi! jendeak denetarik entzuten du. Guk, pertsonalki,

rock-az berba egiten dugu. Badauka punk onda gehiago edo Oi! onda gehiago, baina gutxienez koadro batean ikusten duzu: rock and rolla. Gero bakoitzak ematen dio bere kutsua, bere estiloa. Hori da aberasgarria horrelako *rollo* batentzako.

Zuen kanteak asko dute kritika sozialetik eta abertzaletasunetik.

Taldeak oinarri politiko bat ez eduki arren, argi dago zer ideologia daukagun, gutxi gorabehera bostona antzekoa da: jende langilearen semeak gara, gu ere langileak gara eta pentsaera eskuindarra eramatea ez da gurekin koherentea. Pentsaera ezkertiar baten parte sentitzen gara eta beste era batera ekarpenik egin ez dugunez, gutxienez gure ideiak eta gure erreallitate politikoa musikan nolabait islatzen saiatu gara.

Never Surrender taldeak ARGIAren aurreko zenbakian esana: “Streetpunk taldeek bakarrik futbolaz eta parrandaz abesten dutela topikoa da, hitzetan denetarik dago”. Nahiko zabaldua dago topiko hori ezta?

Bai, ze 1980ko hamarkadan egon da *rollo* apolitiko bat. Oi! giroan gauza arraroa Euskal Herrikoa da. Normalean skinhead mugimendua nahiko apolitikoa da, ez kontra daudelako, paso egiten dutelako baizik: “Politikarik ez, futbola eta garagardoa bakarrik”. Baina Euskal Herriko erreallitatea ez da berdina eta guk gure moldaketa egin dugu.

1977an asko aldatu zen Britainia Handiko panorama, musikaren alorrean behintzat. Sex Pistols eta The Clash taldeek euren lehen diskoak kaleratzeak eztanda eragin zuen britainiar gazteen artean. Punk olatuarekin, gandoz, katekorratzak eta mezu probokatzailak nagusitu ziren. Baina eztanda kontrolatua zen. Balarik gabeko tiroa. Musika eta modaren industriak irentsi zuen berehala. “Punkak etxe blokeetan bizi zirenen ahotsa balitz bezala jokatu zuen. Eta ez zen.

Aitzindari gehienak klase ertaineko arte ikasleak ziren” gogoratzen du Garry Bushell kazetariak, adibideak emanez: “Joe Strummer handiak [The Clash taldeko abeslaria], diplomatiko baten semea bera, estalinismo zahar eta gogorrenarekin jolastu zuen, eta zurien matxinadaren alde abestu, jauregi zuri batean bizi zen bitartean”.

Bilakabide horren aurkako erreakzio modura, eta 1970eko hamarkadaren amaierako krisi ekonomikoak sortutako ezinegonaren aurrean,



skinhead berriak azaltzen hasi ziren. Hasiera-koek baino ile motzagoa zeramaten, bota altuagoak eta praka estuagoak. Eboluzioa: punkaren eragina jaso zuten bigarren belaunaldiko kaskamotzak ziren, langile eta langabeak eta –nola ez– gazteak.

Euskal Herrian, Hegoaldean batez ere, 1980ko hamarkadan hasi ziren skinheadak azaltzen, Euskal Rock Erradikala izenez bataiatutako musikaren gerizpean. Garai horretako taldeen itxurari erreparatuta –Kortatuko abeslaria zenean Fermin Muguruzak zeukana adibidez– nabarmena da beraien eragina. Fanzineak ere kaleratu zituzten: Bilbon *Kaskamotzak* eta *Doctor Skinhead*; Gasteizen *Nite Klub*; eta Iruñean *Black & White*.

“Baina lehen zailagoa zen material ingelesa eskuratzea Euskal Herrian” dio *Kolinasek*. “Konplikatu zen. Jendeak Ingalaterrara bidaiatzen zuen eta lagunak eskariak egiten zizkieten: ‘Jaitsidazu hau, jaitsidazu bestea...’”. Horregatik agian, Euskal Herriko gazteen artean eragina izan bazuen ere, skin mugimendua ez zen oraingo mailara iritsi.

Naziak? Hemen ez

1970eko hamarkadaren amaierako fenomenoak da *bonehead* edo skinhead naziena. Jatorria,

Dr. Martens estiloko botak skinheaden ohiko oinetakoak dira.

Olaberriako zirkuitua

Gida eskola Karting-a

Gainera auzoa, Z/G
 20212 Olaberria
 ☎ 943 16 08 62
www.vilarinomotor.com
info@vilarinomotor.com

Skigirlak, hasieratik mutilen pare

Skinheadez hitz egitean ezin aipatu gabe utzi emakumeek mugimenduan duten lekua. Hasieratik egon izan dira skigirlak —Britainia Handian *chelsea* izenez ere ezagutzen dituzte— mutil kas-kamotzen ondoan.

Dena dela, mutilen itxuraren aldean, orrazkera eta janzkera desberdina dute. Ilea motza daramate ia buru osoan, baina garondoan, belarrien ondoan eta kopetea xerlo luzeagoak utzi ohi dituzte. Janzkeran ere, askok tiranteak, bakero estuak eta Dr. Martens botak daramatzaten arren, aldaera partikularrak azaltzen dira. Punkak eraginda, koadrodun gonak eta brogue erako larruzko zapatak ere erabiltzen dituzte leku batzuetan.

Hemen ere, azken urteetako zabalkundearekin, ugaritu egin dira, nahiz eta ez diren mutilik bezainbeste. Musika taldeetan ere azaldu dira. Hor daude, esaterako Suspenders taldeko Miner baxu jolea eta Ostikua Potrotan taldeko kideak.



ANNA HAMMARSTRÖM

berriro ere, Britainia Handian bilatu behar da. Ingalaterrako National Front alderdi ultraeskuindarra langile gazteei bideratutako nola-halako mezu sozialen bidez, skinhead batzuk erakartzen hasi zen. Hedabideek laster sortu zuten skinhead-nazi binomioa eta 1980-81. urteetan alderdi faxistetako kide gazteenek estetika hori hartu zuten. Eta hori ere nazioartera zabaldu zen.

Eta hemen? Erreportaje hau osatzeko kontsultatutako iturri guztiek aho batez erantzun dute: Euskal Herriko skinheaden gehiengo zabal antifaxista izan da betidanik; batzuk apolitikoak, *redskin* edo skin gorriak besteak. Sare Antifaxista elkarteko kideek azaldu dutenez, oso errealitate desberdina da Espainiakoa, adibidez: “Beste aldea da: hemen Euskal Rock Erradikalarren garaian bultzatzen zen filosofiaren bidetik jarraitu da, borroka soziala, sistemaren aurkakoa, antifaxismoa... Han berriz kontzertu faxistak antolatzen dituzte eta eskuin muturrak atzetik dakarren guztia bultzatzen dute”.

Jarrera politiko zehatzik izan ez arren, langileen artetik sortutako mugimendua izaki, betidanik egon izan dira ezkerrekoak edo gutxienez antirrazistak ziren skinak. Baina 1980tik aurrera mugimenduaren irudia neo-naziak monopolizatzen ari zirela ikusita, euren burua antolatatu zuten. 1987an Skin Head Against Racial Prejudice (Arraza Aurreiritzien Kontrako Skinheadak, SHARP) erakundea jaio zen New Yorken (AEB); talde horren izaera apolitikoari buru eginez berriz, hiri berean 1993an Red and Anarchist Skin Heads (Skinhead Gorri eta Anarkistak, RASH) ere funtzionatzen hasi zen. Talde horiek mundu osora zabaldu ziren denbora gutxian, baita Euskal Herrira ere.

Dena dela, Sare Antifaxistako kideen esanetan horrelako erakundeek kide izan direnen ilea bezain esperientzia motzak izan dira hemengoak. “Jendea hamabost edo hamasei urterekin hasten da horrelako kontuetan, baina hoge urte bultan utzi egiten dute”. Bizkaiko RASH taldean adibidez, orain belaunaldi aldaketa gertatzen ari dela esplikatu dute, eta nahiko geldi dagoela.

Desinformazioaz kexu

“Gizartean informazioa badago, baina egia esan telebistan, irratan eta egunkarietan ateratzen den guztia beti lotzen dute eskuindarrekin” azaldu du protagonismoa saihesteko bere izena eman nahi izan ez duen skinhead batek. Duela lau urte moztu zuen ilea, baina mugimendua lehenagotik



interesatzen zitzaion. Kontzertuetan eta futbol partiduetan ezagutu zituen kaskamotz batzuk, eta pixkanaka giroan murgiltzen joan zen. Etsipen puntu batekin hitz egin du zabaldutako irudi ezkorraz: “Hori da saltzen duena. ‘Lau kaskamotzek muturra txikitu diote ez-dakit-zeini’ jartzen dute”. Eskuin muturrarekin ez bada, indarkeriarekin lotzen dituztela aipatu du, futbol zelaietako istiluekin, tabernetako borrokekin... “Baina jaialdiak ere egiten dira, bilerak, kontzertuak”. Mugimendu zabalagoa dela, alegia. “Ez dela bakarrik futbola eta hostiak. Jendeak hori ikusten du: parranda eta futbola. Baina gauza konstruktiboak ere badaude”.

Kolinas ere iritzi berekoa da. “Gogoratzen dut mutil kozkorra nintzenean skin mugimenduaren ideal nagusienetakoa garbitasuna zela; skinen irudia garbitzea”. Dena dela, bere ustez jendeak kalean geroz eta skin gehiago ikustek asko lagundu du aurreiritzi batzuk gainetik kentzen. “*Rollos* zer den hobeto ulertzen du jendeak orain, eta askok badakite kalean ondotik pasatzen zaizkion skinen ez daukatela inolako zerikusirik nazismoarekin”.

Oi! musika, eztandaen epizentroa

Kortatu taldearen *Mierda de ciudad* kantuari esker egin zen ezaguna “Oi!” espresioa inguruotan. The Bussiness taldearen *Drinkin’ and drivin’* kantaren bertsioa zen, baina askok ez zekiten hori, ezta kontzertuetan oihukatzeko eslogan polita izateaz gain musika mota bat zenik ere. Txorromorro, Bihotz Erre eta Puñetazo taldeek heldu zioten ildo horri, baina gutxi izan ziren jarraipena eman ziotenak. Orain arte behintzat.

Lehenago ere aipatu dugun Garry Bushell kazetariak asmatu zuen Oi! etiketa 1980ko hamarkadaren hasierako mugimendu musikal berriarentzat. Cockney Rejects, Cock Sparrer, Angelic Upstarts eta Sham 69 taldeek, besteak beste, punka oinarri hartuta eszena berria sortu zuten. “Laster prentsa musikalak (hau da, nik) desberdina izan zitekeen zerbaiten hasierarekin

identifikatu zituen, punkaren aldaera berri bat, klase kontzientzia handiagoarekin” dio Bushellek *Oi! - The truth* izeneko artikulu mardulean. Berehala hurbildu ziren langile auzoetako skinheadak musikaren berora. “Oi!-a kalezuloetako ahotsa zen, megafono bat irtenbiderik gabeko alprojeztat”

Estiloaren izena Londresko auzoetako espresio batetik dator, eta “iepa!” edo “kaixo”-ren antzeko zerbait adierazten du. Beste batzuk streetpunk ere esaten diote, kaleko izaera hori nabarmentzeko.

Paradoxikoa da: Ingalaterran 1985erako ez harako, ez honako geratua zen musika mota hau, eta orduan izan zuen zabalkunde handiena munduko beste herrialdeetan. 1990eko hamarkadaren bigarren erdialdean piztu zen, dena dela, Oi!-arengako interes masiboa, talde berriak azaltzen hasi eta aurreko hamarkadakoak berriro elkartu zirenean.

Euskal Herriko talde berriak ere garaitu horretan hasi ziren. 1996rako Des-Kontrol arrasatearrak (Gipuzkoa) gitarrak astintzen ari ziren. Suspenders taldea Bilbon sortu zen beranduxeago, 1999an.

Mende berriarekin batera izugarri ugaritu da eszena: Mossin Nagant (Gasteiz), Oi! Kobras (Bilbo), eta Gipuzkoako Afonia (Hernani), Ostiada Oi! (Elgeta), Hell Beer Boys (Tolosa-Beasain), Orreaga 778 (Añorga-Hernani), Kalekumeak (Donostia)... Zerrenda amaiezina da. Usain berriko talde hauen diskoak kaleratzeko Puzkarra Records zigilua ere sortu da. Jaialdiak izugarri ugaritu dira azken urteetan —besteak beste 2004tik Gipuzkoako punk eta Oi!-aren erakusleho bihurtu den *Holidays in Bardulia*—.

Egiten duten musikaz gain, oihukatzen dituzten meziek ematen diote batasuna belaunaldi berri honi. Sistemaren aurkako kanta dira, langile klasearen aldekoak edo futbolari buruzkoak. Eta bitxia da, kontzertu batera joanda agertokian musika jotzen ari diren pertsonen entzuleen izugarrizko antza dute. Izarrik ez hemen. Ondo pasa nahi duten kalekumeak besterik ez. ■

Oi! musikaren beroan elkartu dira

Euskal Herriko skinhead berriak.

Taldeak izugarri ugaritu dira azken

aldian, baita jaialdiak ere

